

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua, online bidez eskuratzen diren produktuak bertan uzteko izatean, gure bezeroak noski Internet bidez erosketak egiteko gai izan behar dira. Erosketa hauek egiteko gai ez diren pertsonak ez dute behar gure produkturik; hirugarren adineko pertsonak, gehienak, ez dute kontsignarik beharko ez dutelako interneten erosketarik egiten. Bestela, orain pertsona askok, erosketak online bidez egiten dituzte eta horientzat izango zen.

Gure produktuarentzako ez dago adin esanguratsurik, baina portaleko bat egongo dela oinarritzat hartuta, portaleko jendea 15-60 adin tartekoak izatea komeni da, izan ere, hauek baitira Interneta gehien erabiltzen dutenak eta honen bitartez eskaera gehien egiten dituztenak, edo bai beraienez edo beraien senitartekoentzat. Hauen tartean lana duten eta etxean denbora luzean ez dauden jendea egongo da eta ezin dutenak paketeak hartu.



E.E.

60 urtetik gorako gehienek ez dute Interneta erabiltzen edo oinarritzkoa egiteko bakarrik. Horregatik, ez dugu uste hauek Internet bidez erosketak egingo dituztenik, eta paketeak jasoko dituztenik, hortaz ez dute kontsigna automatikorik beharko. Horretarako, egiten diren auzo bileretara joango gara eta han bizi diren pertsonekin hitz egingo dugu gure produktua erosi dezaten. Hitz egingo diogun pertsona horrek atariko beste bizilagunak ezagutu beharko ditu eta kasua ez bada, gu izango gara bizilagunekin hitz egingo dugunak eta produktua erosteko konbentzitzen saiatuko ditugunak. Honetarako, ondo ezagutu behar ditugu bezeroak beraien arazo bat izan behar delako paketeriaren iritsiera.

Kontsigna automatiko hauek hasiera batean Euskal Herrian zehar salduko ditugu, eta jende askok nahi duela ikusiz gero, beste leku batzuetan saltzen hasiko ginateke.

Pertsona asko oraindik ez daude ohituta online bidez erosketak egiten, denda fisikoetara joanez egiten baitute. Baina beste jende asko erosotasunagatik aldatzen hasi dira edota denbora gutxi dutelako erosketak egiteko. Beste arazo bat herrian gustuko dendarik ez dagoela izan daiteke eta nahitanahiez hiri handietara joan beharra dute; hori saihesteko online bidez egiten dute erosketa.

Hemen ikus dezakezue online erosten dute pertsonen adin esaguratsua:

ADIN ESANGURATSUA

